



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

2020ko Aurrekontuaren Likidazioa

Kontu-hartzaileak osatu duen Udaleko 2020ko Aurrekontuaren Likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau ebatzi dut:

Lehena.- 2020ko Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea.

Hona hemen horren laburpena:

1. (+) Funts likidoak		9.047.353,94
2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak		2.067.783,67
- (+) Urteko aurrekontukoak	1.746.927,53	
- (+) Itxitako aurrekontuetakoak	308.173,90	
- (+) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketefakoak	12.682,24	
3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak		2.894.373,73
- (+) Urteko aurrekontukoak	2.261.745,95	
- (+) Itxitako aurrekontuetakoak	0,00	
- (+) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketefakoak	632.627,78	
4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak		0,00
- (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00	
- (+) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00	
I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 - 3 + 4)		8.220.763,88
II. Kobrantza zalantzarriko saldoak		240.872,89
III. Gehiegizko finantzazio lotua		0
IV. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (I - II - III)		7.979.890,99
5.- Aurtengo Aurrekontuko eragiketen emaitza:		-5.003.952,58
6.- Aurreko ekitaldietan likidatutako Aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-18.215,48
7.- Doiketak, Altxortegi-Gerakinaren bidez finantzatutako obligazioeng.:		7.016.287,27
8.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		0
9.- Aurrekontu-emaitza		1.994.119,21

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari Likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatza Osoari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2021eko otsailaren 24ean.

ONATIKO ALKATEAK



IZARO ELORZA ARREGI

